

## DONOSTIAKO FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO ZINEMAREN XX. ASTEA

### Zenbait zifra eta balantze laburra

Pasa den azaroaren 6an amaitu zen Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren XX. Astea, ondoko emaitzekin:

- 28.414 ikuslek gozatu dute Astearen jarduerekin azaroaren 8ra arte, igandea (pasa den urtean 44.157 izan ziren). Proiekzioetara joan diren ikusleen kopurua 12.466 izan da (pasa den urtean 16.495) eta programatutako gainerako jardueretan, hala nola, erakusketak, Komiki Jardunaldiak, antzerkia eta musika, parte hartu duten pertsonak 15.948 izan dira (pasa den urtean 27.662). Ikusle-kopuruaren arteko desberdintasunaren arrazoiak hauek dira: Kursaal Jauregia haurren saioetarako eta amaiera ekitaldirako erabili ez izana, programazioari egun bat kendu izana eta kaleko antzerkia kendu izana.
- Asteak diziplina arteko jarduera desberdinen arteko (zinema, musika, antzerkia, erakusketak, etab.) topagune eta une izatearen aldeko apustua irmotzen jarraitzen du, Donostia Kultura urtean zehar lantzen ari den ildoari jarraiki.
- Asteak, bere katalogoa argitaratzeaz gain, bi argitalpen burutu ditu: *“Métal Hurlant”* y *el cine fantástico* liburua, *“Métal Hurlant”* eta *fantasiako zinema* izeneko atzera begirakoarekin bat egin zuena, eta jada ohitura bihurtu dena, *2000 Maníacos* Valentziako fanzinearekin elkarlanean, Astearen inguruko zenbaki berezia.
- Beste behin ere, KUTXAk Astearekin izan duen lankidetzaz garrantzitsua azpimarratu behar dugu. Aurten, bere babesari esker, bi haur-saio egin ahal izan ditugu Victoria Eugenia Antzokian.
- Euskarak Astea izan duen presentziari dagokionez, Euskararen Udal Patronatua eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin elkarlanean, alde batetik, aipatu bi haur-filmak proiektatu dira, eta bestetik, Victoria Eugenia Antzokian guztira 8 film luze eta lehiaketan parte-hartzaile ziren film labur guztiak (17) jatorrizko bertsioan euskarazko azpitituluekin proiektatu dira. Guztira, 2.697 ikusle izan dira Astea euskarazko proiektioak ikusi dituztenak (1.908 helduentzako saioetan eta 789 haurrentzako saioetan), eta pasa den urtean 3.499 izan ziren. Ikusle-kopuruaren beharrezko arrazoiak, bi haur-saioetan, Victoria Eugenia Antzokiaren edukiera, Kursaal Jauregiarena baino txikiagoa izatean datza. Hala ere, helduentzako saioek gorakada nabarmena izan dute: 1.149 ikusletik 1.908 ikuslera pasa gara; saio bakoitzean batez beste 143 ikusle izatetik 212ra pasa gara.



## XX SEMANA DE CINE FANTÁSTICO Y DE TERROR DE SAN SEBASTIÁN

### Algunas cifras y un breve balance

El pasado viernes día 6 de noviembre finalizó la XX Semana de Cine Fantástico y de Terror de San Sebastián, con los siguientes resultados:

- 28.414 espectadores han disfrutado del total de actividades de la Semana hasta el domingo 8 (44.157 el año pasado). El número de espectadores que ha asistido a las proyecciones ha sido de 12.466 (16.495 el año pasado), mientras que 15.948 personas han participado en el resto de actividades (27.662 el año pasado) programadas como exposiciones, Jornadas del Cómic, teatro, música, etc. La diferencia de espectadores viene dada por la no utilización del Kursaal, para las sesiones infantiles y la clausura; por la supresión de un día de programación; y por la supresión del teatro de calle.
- La Semana sigue consolidando su apuesta por ser un lugar y un momento de encuentro entre distintas actividades interdisciplinares (cine, música, teatro, exposiciones, etc.), en la línea del trabajo que Donostia Kultura desarrolla a lo largo de todo el año.
- La Semana ha editado, además del catálogo de la misma, dos publicaciones: el libro *“Métal Hurlant”* y *el cine fantástico*, que acompañaba la retrospectiva del mismo nombre, y, como ya es tradicional, en colaboración con el fanzine valenciano *2000 Maníacos* un número especial del mismo.
- Un año más hay que resaltar la importante colaboración de KUTXA con la Semana. Este año se han celebrado con su patrocinio dos sesiones infantiles en el Teatro Victoria Eugenia.
- En cuanto a la presencia del euskera en la Semana, en colaboración con el Patronato Municipal de Euskera y la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco, por un lado se han proyectado las dos películas infantiles citadas, y por otro, en el Teatro Victoria Eugenia se han proyectado un total de 8 largometrajes y todos los cortometrajes a concurso (17) en versión original subtitulada al euskera. En total, 2.697 espectadores han disfrutado de la Semana en euskera (1.908 en sesiones destinadas a los adultos y 789 en las infantiles) frente a los 3.499 del año pasado. El descenso del número de espectadores viene dado por el menor aforo del Teatro





**Fantasiako eta Beldurrezko  
Zinemaren Astea**

**Semana de Cine  
Fantástico y de Terror**

**Horror and Fantasy  
Film Festival**



Victoria Eugenia, frente al Kursaal, en las dos sesiones infantiles. Sin embargo, las sesiones para adultos han tenido un importante incremento: de 1.149 espectadores a 1.908. D e una media de 143 espectadores por sesión a una de 212.



**DONOSTIA KULTURA**

Erregina Erregentea - Reina Regente, 8 • 20003 Donostia - San Sebastián  
tel (34) 943 481 157 • [cinema\\_cinema@donostia.org](mailto:cinema_cinema@donostia.org) • [www.sansebastianhorrorfestival.com](http://www.sansebastianhorrorfestival.com)



**Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián**